

PENTSAMENDU POLITIKOAREN HISTORIA

Ikus-entzunezko Komunikazioa

2. kurtsoa / 2. lauhilekoa

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aitor Silva

0. gaia: Sarrera

Zer da politika?

*Politics might be defined briefly as a **process** whereby a **group of people**, whose **opinions** or **interests** are initially **divergent**, reach **collective decisions** which are generally regarded as **binding** on the group, and enforced as **common policy** | Hitz garrantzitsuak (**gakoak**):*

-Prozesua: zerbait dinamikoa, etengabeko mugimenduan dagoena. Beraz, politika zerbait dinamikoa da ere.

-Pertsona talde bat: pertsonak izan behar dute (historian zehar gizonak egon dira agintean. Emakumeak esparru politikotik kanpo egon dira).

-Interesak: hasiera batean, interesak eta iritziak kontrajarriak dira (dibergentzi iturri bat). Mugak zehaztu gabe daude; ideologia ezberdinek muga horiek zehaztu behar dituzte.

-Iritzi kontrajarriak: mugak definituta, bakoitzak interes ezberdinak.

-Erabaki kolektiboak: arazo ezberdinentzako konponbideak aurkitzen saiatu behar dira.

-Loteslea (*binding*): (tiranoak armadarekin inposatu).

-Politika komuna.

Nola ikasi pentsamendu politikoaren historia? (ohar metodologiko zenbait)

Filosofo gehienak, ikuspuntu eurozentriko (mendebaldekoa) eta androzentriko bat dute. Hizkuntzak (eta kultura) oztopo handia izan dira (nork zekien Txinera lehen?).

Bi hurbilketa mota daude:

1. Ikuspegi testualista (eskuliburu denak):

-Testu interpretazioa da (hermeneutika).

-Autoreengan zentratzen da (beti euren testuak oinarri):

a) Garai baten barruan (esaterako, Frantziar pentsamendu iraultzailearen barne),

b) Ideia zehatz baten harian (i.e. tolerantzia),

c) Eta pentsamendu lerro baten testuinguruan (i.e. liberalismoa)...

2. Ikuspegi kontestualista: pentsalari bat behar bezala ulertzeko, bere ingurune ekonomiko, sozial, erlijioso... ezagutu behar dugu (ez da bakarrik testuetan zentratzen).

Zer da 'klasiko' bat?

Edozein arteetan (zinemagintza, musikagintza, etab.) lan klasikoak idatzi dira (ikusiko ditugun autore guztiak klasikoak dira). Zenbait bitxikeri / ezaugarri ditu: eragina (zerbait irakasten digute), kalitatea, atemporalitatea (denbora zehaztugabea)...



Ikasgai oso bat irudi batean laburbilduta (*wir sind das volk* = gu gara herria):

- Igelak koroa darama (boterea)
- Igelak euliak jaten ditu (non daude mugak?)
- Nortzuk osatzen dute herria (herria dagoenean)?
- Boterea legearen gainetik dator?

Zertarako balio du filosofia politikoa? (John Rawls)

Filosofia politikoak nolakoak diren gauzak esaten digu. Helburu batzuk eskaintzen dizkigu, horizonte bat.

1. Gaia: Greziar Sistema Demokrazia

Greziar mundu klasikoa k.a. IV. mendean

Greziar mundu klasikoan ez zegoen batasunik, dena hiri-estatuetan (*polis*etan) zegoen banaturik. Guztietatik (400 bat gutxi gora-behera) bi hiri nabarmendu ziren: Atenas (demokrazia) eta Esparta (aristokrazia). Hiri batzuk Atenasen fabore zeuden eta beste batzuk Espartaren alde. Ateniarrak demokrazia prozesu historiko baten ondorio izan zen.

Atenaseko gizarte egitura

1. Esklaboak (200.000 gutxi gora-behera):

- Hiritarrak ez ziren biztanleria. Garai horietan normala zen gizarte-hierarkizazioa. Ez zuten inolako askatasun ezta eskubide-politikorik (ez parte hartu politikan).
- Esklabutza-sistema oso gauza naturala zen (denborarekin ideia hau alde batera utzi da).
- Hauen papera: esklaboek lan materiala egin eta hiritarrak filosofatzera dedikatu.

2. Metekoak (atzeritarrak):

- Atenas hiri merkataria zen, beraz populazioaren zenbaki handi bat metekoak ziren. Ez zeuden esklaboen mailan, baina hala ere, ez zeuden ondo ikusiak.
- Ez zuten inolako eskubide-politikorik (ez zirelako hiritarrak).
- Ateniarren logikaren arabera, Atenaseko mugak babesteko euren armadan sartzen uzten zieten, interes bereziak zirela eta (negozioak gehienbat).

3. Hiritarrak (40.000 gutxi gora-behera; gizonak bakarrik):

- Legitimitate osoz parte har zezaketen politikagintzan (guztietan nagusia Asanblada).
- Gehienek bazekiten idazten eta irakurtzen.
- Hiritartasuna jaiotzez lortzen zen (salbuespen batzuk alde batera utziz).
- Politikoki, hiritar guztiak berdinak dira; aldiz, ikuspuntu ekonomiko batetik, posible zen hiritar txiro edo aberatsa izatea.
- Ostrazismoa: norbaiten eragina kaltegarritzat ikusten zutenean, kanporatu egiten zuten.

4. Emakumeak:

- Naturaz, ateniarrak emakumea gutxiago zen (esklaboak bezala).

-Greziarretatik XX. mendera arte, gizonen esparrua esfera publikoa (agora / plaza) izan da. Bi azpi-esparru sartzen dira hemen: politika eta defentsa. Aldiz, emakumeei esfera pribatua uzten zitzaizen (etxea).

-Emakumearen ikuspegia greziarrengan:

Sophocles: “*The oaths (promesa) of a woman I write on water (se desvanece)*”.

Democritus: “*To be ruled by a woman would be the ultimate insult to a man*”.


“*Do not let a woman practice argument; for that is frightful (beldurgarria)*”.

Erakunde politikoak

Asanblada: Ateniar erakunde esanguratsuen asanblada zen. 20 urtetik gorako hiritarrak (denak gizonak) osatzen zuten. Urtean 40 aldiz biltzen ziren, bertaratzea boluntarioa izanez.

Organorik garrantzitsuenak zen (botere legegilea), gutxieneko parte hartzearekin (6000koa). Erabakirik garrantzitsuenak hartzen ziren bertan (soldata bat jasoz).

Ateniarrek saiatzen ziren ahalik eta instituzio gehienetan parte hartzen (ezin errepikatuz postu batean). Asanbladan instituzio berriak ireki zituzten: kontseilua eta komitea (komiteko presidentea egun bateko postua). Ondoren tribunalak (botere judiziala) eta militarrek zeuden.



Ideal politikoak (zentzu dialogikoa)

1. Berdintasun politikoak: Ikuspuntu politiko batetik, denak berdinak dira. Hiru zutabeetan banatzen da:

- Isonomia (iso (*berdina*) + nomos (*legea*)).
- Isegoria (iso (*berdina*) + agora (*plaza*)).
- Isocratia (iso (*berdina*) + cratia (*boterea*)).

2. Herri gobernuak: Herriak gobernatzen du, herria da soberanoa. Ez dago herriaren gainetik dagoen inongo botererik.

3. Askatasuna: Ateniarrentzat aske izatea ere politikagintzan parte hartzea zen. Politikan parte hartzen ez zuenari “idiota” deitzen zitzaion.

Perikles ateniar demokraziari buruz

“*Besteen legeak imitatzen ez dituen sistema politikoa daukagu, besteentzat eredu egiten gaituena, besteen imitatzailerik barik. Gure sistemaren izenari dagokionez, bere administrazioaren xede ez direlarik gutxi batzuen interesak, demokrazia deritzo eta, legeen arabera, guztiek dituzte eskubide berdinak beren auzi pribatuetan; bakoitzarekiko baliospenari dagokionez, zerbaitetan prestigioa ukanez gero, inor ez da hautatzen arazo publikoetan parte hartzeko talde jakin bateko kide izateagatik lehenago bere merezimenduengatik baino, eta pobrezia dagokionez ere, ospe ilunekoak izatea ez da sekula eragozpen inorentzat, baldin hiriaren onerako egin ahal badu*”

1.1. Platon (k.a. 427-347)

Sarrera

-Familia aristokratiko batetik zetorren eta Sokratesen dizipulua izan zen.

-Hauek dira bere lan politikoak: **Errepublika** (*Politeia*) eta *Politikoa eta Legeak*.

-Pentsalari politiko bat baino askoz gehiago izan zen. Mundu ideal bat asmatzen du, baina ez du begiratzen ea posiblea den.

Bertutea ezagutza da

-Prozesu intelektualaren bidez, posiblea da bizitza (gizabanako zein estatuarentzat) on bat erdiestea (ongia ezagutzea lortzea).

-Jakintsuenek zeresan handiagoa izan behar dute (gehien dakienak goberna dezake).

-Botere politikoaren legitimazio iturria **ezagutza** da.

-Egia zerbait objektiboa da. Platonen ustez, ideien munduan, ideien arrazoa eta eztabaidarekin egiaren mundura iritsi daiteke. Batzuk gertuago egongo dira eta beste batzuk urrunago. Gertuen dagoena legitimaturik egongo da gobernatzeko.

-Atenasen demokrazian, herriak “gubernaria” aukeratzen du; aldiz, Platonentzat legitimazio indarra jakindun batek izan behar du bai ala bai.

Iritzi publikoaren ezgaitasuna eta fakzio-izpiritua (alderdikeria), edota ateniar demokraziari kritika

-Ezagutza mailak ez zuen garrantzirik: hiritarra baldin bazinen, eskubidea zenuen politikan parte hartzeko. Platonek ez zuen honakoa begi honez ikusten, izan ere, bere ustez ez jakintsuenek ezin dute gobernatu.

-Fakzio izpiritua: hiri guztietan bi herri daude: txiroak eta aberatsak (alderdikeria). Bi azpi talde hauek euren interesak interes orokorren gainetik hartzen dituzte eta alderantziz izan beharko litzateke.

-Platonek bi arazo hauek (ez jakintasuna eta fakzio-izpiritua) konpondu nahi ditu eta horretarako bere sistema sortzen du (utopikotzat hartzen dena).

Elkarrekiko beharra eta lan-banaketa

Platon **espezializazioaren legean** oinarritzen da (gizaki oro naturaz baditu doi batzuk, gai da esparru batzuetan lan egiteko, eta beste batzuetan ez). Badago jendea gobernatzeko gai dela eta bi esparrutan banatzen dira (hauek ezagutza maila handiena dute, ongiarengandik hurbilen dauden gizakiak dira):

1. Langileak

2. Zaindariak:

a) Soldaduak.

b) Gubernariak → Filosofo-erregea (garrantzitsuena da hauek identifikatzea, heziketa on bat eskaintzeko).

Gizabanako bakoitzak bere maila dauka, baina gizatalde horiek ez dira itxiak; printzipioz, edonor bilakatu daiteke filosofo-erregea.

Justizia

Platonen definizioa: **bakoitzari dagokiona ematea**. Hura gauzatzeko bi bide daude:

1. komunismo primitiboa (bide negatiboa / zer ezabatu): Platonek harreman sexual afektibo monogamoak eta iraunkorrak desagerraraztea proposatzen du. Gobernariak gobernagintza lanetan egon behar dira, eta horretan inbertitu bere ahalegin guztiak. Beraz, gobernariak propietatea eta familia (dena dela, seme-alabak izan ditzazkete, baina beraiek ez jakin zeintzuk diren haiek) ezabatu behar dituzte euren bizitzetatik.

Zein izan daiteke bere egitasmoa? Interes propiorik ez izatea. Objektiboa izatea, izan ere, ez baduzu familiarik edo propietaterik, denak berdin tratatuko dituzu.

2. Heziketa (bide positiboa): Platonentzat heziketa oso garrantzitsua da eta bere ustez Estatu bere gainean hartu behar zuen. Lehen kontu pribatua zen, baina Platonek zioen hura “publifikatu” behar zela. Bi generoak heziketa berdina jaso behar zuten, nahiz eta emakumeak ahulagoak izan.

Zuzenbidearen garrantzia

Zuzenbideak ez zuen lekurik, izan ere, bazeuden agintari batzuk (filosofo-erregeak) herriari ea zer komeni zitzaion esaten zutenok.

1.2. Aristoteles (k.a. 384-322)

Sarrera

-Ez zen ateniarra, Estagiran jaio zen (Atenasen metekoa). Hala ere, bere pentsamendua oso estuki zegoen lotuta ateniar pentsamoldearekin.

-Platonen ikaslea izan zen. Ondoren, bere eskola propioa irekiko zuen (*Lizeo*).

-*Politika* delako liburuaren egituraz hitz egin behar da (20 urte igaro idazten). Bere bizitza osoan zehar idatzitako liburua izan zen, beraz, bere pentsamenduaren eboluzioa oso interesgarria da. Estatu ideal eta erreala inguruan idazten zuen.

Estatu ideala

Alde nabarmena ikusten da Platon eta Aristotelesen artean:

1. Legearen gailentasuna: Zuzenbidearen arabeko gobernu (garrantzitsua Aristotelesentzat) defendatzen du, hiru ideia nabarmenduz:

-Herriaren interesei begira.

-Errejimen juridikoa (arau orokorrak).

-Obedientzia, borondatezkoa.

2. Ideal etikoa:

-Helburua: bizimodu zoriontsua izatea hiriaren barnean, gizartean. Horretarako hiritarrak politikan parte hartu behar zuten.

-Zoon politikon (animalia politikoa).

-Natura vs hitzarmena. Gizakiak besteekin bizitzeko joera dute, sozialeak dira, eta horrela lortuko dute zoriontasuna.

3. Gobernu formak:

INTERESA	Bat	Batzuk	Denak
Partikularra	Tirania	Oligarkia	Demagogia / Demokrazia
Orokorra	Monarkia	Aristokrazia	Demokrazia moderatua / Politeia

Estatu Erreala

1. Indarrean jarri daitekeen errejimen formarik onena demokrazia moderatua da. Honen oinarri soziala klase ertaina da (kalitate eta kantitatearen arteko oreka). Klase ertaina sortu behar da, izan ere, horrek egonkortasuna emango dio Estatuari.

2. Partaidetza politikoa: hiritartasuna eta esklabutza.

a)Hiritarra: Epaille edo asanbladaren partaide den oro (magistratua). Justizia herritarrek egiten dute, baina ez du esan nahi herritar guztiek justizia egiten dutenik.

b)Esklaboa: Aristotelesen ustez, esklaboak egotea ona da (“*el esclavo es un subordinado para las cosas prácticas*”). Zergatik da esklabo esklabo? haien ustez, hura naturala zelako, eta natura ez da okertzen.

*Emakumea: Emakumeen kasuan, hauek infrabalaratu egiten dira. Hierarkikoki oinarritutako egitura da. Hori guztia naturak horrela egin gaituelako esanez justifikatzen da.

2. Niccolo Machiavelli (1469-1527)

Sarrera

-Makiavelorekin Pentsamendu Politikoaren Aro Modernoa irekitzen da.

-Makiaveloren garaian, 1490ean Italia ez zen existitzen entitate politiko gisa. Frantzia eta Ingalaterra, adibidez, bai. Bertan ez zegoen batasun politikorik, entitate politikoetan banatuta zegoen: Milan, Venezia (errepublika), Napoles (erreinua), Sizilia...

-Florentziarra zen eta bigarren Kantzillerraren kargua zuen, Nazioarteko Ministerioan lan eginez. Bere estatusa balio izan zion kargu altuekin harremanak izatea, horiei buruz ikasteko.

Florentzia: Errepublika bat zen. Bertan bazen familia bat boterea zuena: De Mediciak. 1494ean, gorabeherak egoten dira eta lau urtez errepublika herritarren abadearen zuzendaritzapean geratzen da.

Printzearen egitura

Medici familiak boterea berreskuratzen duenean Makiavelo botere posizioetatik kanpo geratzen da, hau da, langabezia. Ondorioz, Printzea idazten du, gobernariari zuzendutako gomendio liburua. Bertan gobernariari esaten dio ea nola jokatu behar duen bere botereari eusteko.

Lan hau XIX. mendera arte Elizak zentsuratuta egon zen. Garai hartan, esparru erlijiosoak politika, kultura eta ekonomia estaltzen zituen eta elizaren aginduek esaten zuten nola jokatu behar zuten agente ekonomikoek. Makiavelorekin lotura hori apurtu egiten da. Honen ustez, eliza beste esparru bat da eta bi esparruak ez dira nahastu behar.

1. I - IX. atalak. Printzerri motak:

-Heredagarriak (beste printze batengandik jasoak), zailak ez direnak edo berriak:

·Berrien barruan → mixtoak (beste herrialde batek printzerri bat bereganatzen duenean) edo guztiz berriak:

·Guztiz berrien barruan → printzearen armak eta virtú-ari esker (printze batek virtú-a dauka bere botereari eusten dioenean eta bere menpekoen ongizatea lortzen duenean) edo beste printze baten armei edo Fortunari esker (garrantzi handia ematen dio honi).

2. XII – XIV. atalak. Estatuaren ‘autonomia’; ejertzitza:

Estatu bat autonomia da berezko ejertzitza (bere herritarrez osatua) duenean (adibidez Espainia). Italian aldiz, mende horretan, *condottieri*-ak (mertzenarioak) zeuden. Makiavelok berezko ejertzitza sortzea proposatzen du Estatu autonomia izateko.

3. XV – XXIII. atalak. Nola jokatu behar du printze batek bere lagun eta menpekoekiko?

Kapitulu hauetan agertzen da Makiaveloren pentsamenduaren mamia: bere ikuspegia eta berezigarria bere ikuspegi historikoa da. Hemen bi eredu kontrajartzen ditu: idealismoa eta errealismoa (berak hobesten duena).

Berari errealitatetik abiatuta ondorioak bilatzea interesatzen zaio. Gainera, norbait oztopo bilakatzen bada, bidetik kendu behar zaiola adierazten du.

4. XXIV – XXVI. atalak. Italiako egoera politikoaren azterketa:

Estatuak herrialde boteretsu eta erreferentziazkoak ziren. Politikariaren helburua Italia Estatu sortzea eta honen batura aldarrikatzea.

Makiavelismoa

Printzearen pasarteak:

“*Krudel famak ez du printzea kezkatu behar, bere menpekoak elkartuta eta leial edukitzeko balio badu*” (XVII. atala)

“*Saia dadila printzea, beraz, estatua irabazten eta babesten: mundu guztiak onartu eta gorai patuko ditu bitartekoak, itxurak eta arrakastak erraz liluratzen baitu jende xehea; eta zer da mundua jende xehea baino*” (XVIII. atala)

“*Dena dela, printzeak ez badu maitatua izatea lortzen, ematen duen beldurra ere ez dio gorrotorik sortu behar; bateragarriak dira (beldurra ematea eta ez gorrotatua izatea; eta hala gertatuko da bere herritarren eta menpekoen ondasunak eta emaztekiak bakean uzten baditu; eta noizbait norbaiti bizitza kendu beharrean bada, hala egin dezala, komenigarria ikusten badu eta ageriko arrazoirik badago. Baina, batez ere, ez dezala inoren ondasunik ukitu, gizonek lehenago ahazten dute eta aitaren heriotza ondasunen galera baino*” (XVII. atala)

3. Thomas Hobbes (1588-1679)

Sarrera

-“*My mother gave birth to twins: myself and fear*”: honekin beldurra gainditzea izango du helburu bezala bere teorian.

-Lanbidez tutorea izan zen (bakarrik maila altuko kideei), eta zenbait bidai egin zituen kontinentera (bai Frantzia baita Italian ere).

-Ingurune politiko, erlijioso, ekonomiko eta soziala: gerra eta gatazka garaia zen (beldurra gai garrantzitsua). Gerran ez dago bizitzerik, beraz zer nolako politika eraiki behar den izango da bere egitasmo nagusia.

-Erregezaileek Hobbesen proposamena ez zuten begi onez ikusten. Gaizki gelditua atera zenez, erbesteratuta atera zen Parisera.

-Bere lan garrantzitsuena *Leviathan*-a (1651) izan zen, lau ataletan banatu zuena.

Metodo zientifiko eta politikoaren ikasketa

-Hobbes, zientzia politiko modernoaren sortzaileetariko bat da. Zientzia naturaletan erabilitako metodoa politikaren ikasketara pasatzea nahi zuen. Axiomak (frogatu gabe dagoena) erabiltzearen aldekoa da.

-Metodo axiomatiko-deduktiboa sortu zuen (matematiketan erabilia). Gizabanakoa abiapuntua izan da (bere gizartea gizakiz osaturik dagoelako).

-Bere kezka nagusia: Zerk mugiarazten (edo geldiarazten) du gizakia? Hobbesen ustez, zoriontasuna bilatzea (hau axioma bat da, izan ere, ezin da frogatu).

-Hizkuntzaren papera: Hobbesek zioen arabera, gizateriak jausi definitiboa ematen du hizkuntzari esker, izan ere, hau da beste animaliangandik gizakia bereizten duena.

Hobbesen arrazonamenduak. Lau urratsetan banatzen dira: 1. Gizabanakoaren azterketa / 2. Natura egoera / 3. Lege naturalak / 4. Estatua edota *Leviathana*.

Hobbesentzat **politika ez da tresna bat baino gehiago izango** gerra eta gatazka gainditu ahal izateko.

Gizakiaren teoria

Hobbesek dio gizaki orok grinak dituela: desio batzuk, beldurrak, esperantzak... hauek dira gizakiak mugiarazten dituenak. Gizakiaren helburua zoriona dela dio, zoriona bilatzen dugu. Baina zoriontasuna ez da betirako, soilik momentu puntaletan agertzen da. Gainera, gizabanako bakoitzari objektu desberdinak egiten dizkie zorionsu, esaterako, bati txorizo bokata bat zorionsu egin diezaioke, baina begetariano bati ez. Ondorioa? Zoriona, iraganekoa eta apurkorra da.

Hobbes-en ikuspegi antropologikoa: pentsalariaren ustez, gizakia berekoia da. Bere zoriontasuna lortzen saiatzen da, berekoitasun horren seinale Garrantzia gehien dituzten gauzak norberarenak dira, ondoren harremanak (ezkont-afektua, maite dituzun pertsonen ongizatea) eta, azkenik, aberastasun eta bizi baliabideak.

Baina benetan gizakia berekoia da? Interpretazio bat eskatzen duen erantzuna da hau.

Urritasuna + Berdintasuna → lehia, gerra:

-Urritasuna: Ez daude nahiko baliabide guztiok asetzeko. Harreman pertsonalak landu egiten dira eta borrokatzeko modu batean bihurtzen dira. Besteekin sartu behar gara lehian, haien zoriontasun iturriak diren baliabideak ustiatzeko.

-Berdintasuna: Gizabanakoak naturaz berdinak dira. Ez du zehazten maila guztietan berdinak garela, baizik eta gorputz eta arimaren ahalmenetan. Gizakiak “*equal enough*” (nahiko berdinak) direla dio.

Natura egoera

Natura egoera une aurre politiko horri deitzen zaio (ez dago injustiziarik moralaren ikuspuntutik). Politika sortu ondoren, instituzioak, agintariak... agertuz joango dira.

Hobbesek botere komun batera iritsi nahi du. Natura egoeran ez dago ezer ziurrik, dena da gatazka egoera. Interesatzen da gerra alde batera uztea eta bakea lortzea. Gerra denbora aintzat hartu beharra dago. Prozesu bat da bakearekin partekatzen dena, hasiera eta amaiera bat izanez. Bakea gerraren aurkakoa da.

Homo homini lupus → gizakia otsoa gizakiarentzat (etengabeko mehatxua). Etengabeko gerra mehatxuan bizi bagara, Hobbesen arabera, ez dago injustiziarik (moralaren aldetik, ez zuzenbidetik).

Natura egoeran, gizaki bakoitza beste gizakien beldur da. Ez dago legerik, ez poliziarik ez ezer, beraz beldurra sakabanatuta dago. Baina soberanoa dagoen momentutik, beldurra fokalizatuta egongo da. Zigorak ezarri ahal izango ditu (soberanoak).

Laburbilduz: botere komunik ez dagoen tokian, ez dago legerik; eta legerik ez dagoenean, ez dago injustiziarik.

Lege naturalak

Gizakia nolakoa den eta zerk mugiarazten duen, urritasuna eta berdintasuna kontuan harturik, ezinbestean natura egoera (gerra egoera) batean erortzen da. Kasu honetan, Hobbes-ek dio momentu hau fiktizioa dela eta iristen dela momentu bat gizakiak hausnarketa eginez “honela ez dago bizitzerik, egoera hau gainditu beharra dago”. Izan ere, gizakiak nahi duena bere bizitza bermatzea da.

Egoera politikoan, bere burua defendatzeko eskubidea soberanoak bakarrik izango du. Hausnarketa hori egiteko tresna lege naturalak izango dira. Hauek gizakiak izateagatik barneratuta ditugun legeak dira. Hobbesek 19 lege natural bereizten ditu baina denak ez dira garrantzitsuak. Gizaki orok uko egin behar dio natura egoeran duen eskubide horri eta soberanoaren esku utzi (ezpata izango duena).

Kontratu edo hitzarmenak bi motatakoak izan daitezke: espresuak (zer esan nahi den ulertuta esaten diren hitzak) edo inferituak (hitzen bidez gerta daitezke baina ez modu zuzenean; beste batzuetan, isiltasunaren ondorioa edo ekintzen ondorioa).

Soberanoa indarraren erabiltzaile legitimo bakarra izango da; natura egoeran, nork bere burua defendatzeko biolentzia erabili dezake, baina gizarte-hitzarmenaren fikzioaren bidez, soberanoa izango da ardura hori hartuko duena. Gizakiak uko egiten diote bere burua defendatzeko eskubideari.

Estatua

Gizakiak ados jartzen dira beraien artean soberano bat aukeratzeko. Hala ere, Hobbesek ez du uste soberanoa pertsona bakar bat izan daitekeenik. Aukeratzten den ordezkari soberanoak bake eta segurtasun komuna bermatu beharra du.

Soberanoak (gizon bat edo gizon biltzarra) bakea eta segurtasuna bermatzeko egiten duena eta hartzen dituen erabaki eta neurriak, gure nahiak dira; gu gara soberanoa baimendu dugunak. Gizartekideek hitzarmena egin dute eta akordio horretara iristean sortzen da persona bakar batean baturiko gizataldea; honi Estatua deitzen zaio. Soberanoaren aginduak obeditu behar dugu, zeinek bakea eta segurtasuna bermatzeko sortuak diren.

Bere hitzetan, estatua honakoa da: “soberanoak denen indar eta bitartekoak erabili ditzakeena da, beti ere haien bake eta segurtasuna bermatzeko. Soberanotasuna absolutua eta banaezina da”.

Hobbesen ikus-estrategiak

Leviathaneko portadak Hobbesen ideia politiko konplexua laburtzen du:

-Goian soberanoa agertzen da, botere politikoaren sinboloa denarekin: koroa.



-Esku baten makulua dauka, erlijioa ordezkatzuz. Beste eskuan ezpata, mundu honetako botere tenporala ordezkatzuz.

-Erregeak erreinua behar du eta irudian bere lur eta hiria ikusten da.

-Soberanoaren gorputzean zentratuz, hau 300 bat gizakiz osatuta dagoela ikus daiteke, gainera, hauek gora begira (soberanoari begira) daudela ikusten da. Horrela, irudiak jainkoaren antza hartzen du. Soberanoari gure obediencia zor diogu, bere nahiak jainkoarenak balira bezala obeditu behar ditugu (gure nahiak direlako: bakea eta segurtasuna).

-Irudian badira bi simetria: goitik behera eta ezkerretik eskuinera:

· Ezkerreko aldean, ezpatarekin edo erregearekin lotutako sinboloak daude: gaztelua, koroa, kainoia (arma), bataila, bataila zaldi eta zaldunekin.

· Eskuinaldean berriz, botere erlijiosoarekin lotura dutenak: eliza, mikra, trumoiak (arma), bataila erlijiosoko armak (tridentea) eta bataila erlijiosoa (eztabaida; kasu honetan arma argudioak dira).

4. John Locke (1632-1704)

Sarrera

-Liberalismoaren sortzaileetariko bat izan zen eta John Stuart-Mill eta beste hainbatekin batera liberalismoaren ikurra da.

-Lanak: *Two Treatises of Government* eta *A Letter Concerning Toleration* (1689).

Natura egoera

John Locke liberalista eta kontraktualista zen. Hobbes bezala, natura egoera (askatasun egoera, tentagarria da, baina gabeziak ditu, beraz alden du beharreko zerbaitekin) batetik egoera politiko batera igaro nahi du hitzarmen baten bidez (kontraktualismoa). **Askatasuna bi momentu** ezberdinetan bereizten ditu:

1. Askatasun naturala: hemen, gizakiak erabateko askatasuna dauka bere burua defendatzeko, ez dago botere politikorik ezta gizabanakoa babesteko duen inor.

2. Egoera politikoa: ezinbestekoa da gizabanakoen onespina elkarte politikoak sortzeko, behin elkarte politikoan sartzen diren gizakiek natura egoeran zeuzkaten eskubideak galtzen baitituzte. Jarraitu beharreko helburu bezala, guztiontzat berdina den lege bat sortzea da, gizarte demokratizatzeke.

Denok berdinak gara, arau berdinen barruan, legearen aurrean ere (ideal normatiboa).

Askatasunezko egoera hori oso prekarioa da, hau da, beti kolokan dabil, eta horregatik, berekin amaitu behar da, egoera horretatik ateratzeko. Ondorioz, natura egoera horretatik atera beharra dago. Gizakiak natura egoeran dituen eskumenak bi dira: bere burua defendatzea (segurtasuna) eta besteak zigortzea. Elkarte politikoa sortzen den unean, bi eskumen hauek galtzen ditu. Hauek hitzarmenaren bidez sortzen dira.

Propietatea eskubide natural bezala

Propietatea zurea den eta inork kendu ezin dizuna da. Hau zure lana horretan inbertitu duzunean bihurtzen da zure propietatekoa. Hala ere, besteentzat nahikoa eta kalitate berekoa dena utzi behar du (**Locke's proviso** deitzen zaiona). Hau da, gizakiak propietatea berengana dezake baina gehiegikeriarik gabe.

Gizarte hitzarmena

Gizabanakoari zerbait inposatzen bazaio, ez da gizarte hitzarmena, inposaketa baizik. Gizarte hitzarmena onesteko, gizakia ados egon behar da horrekin, natura egoeran dituen eskubideei uko egiteko eta elkarre politikoaren eskubideak jartzeko.

Ezin da inposatu gizaki baten aurrean, bere onarpena eman behar du. **Gobernuari mugak jartzen zaizkio:** liberalak beti saiatu izan ohi dira gobernuari mugak jartzen, hauek beti nahi dutena ez egiteko (mugatu). Mekanismo batzuk asmatzen dira gobernariaren jardura kontrolatu eta mugatzeko:

1. Zentzu filosofikoan: Estatu liberal bat neutral mantendu behar da (laikoa), ez du ikuskera jakin bat ezarri behar bere herriari. Gizabanakoa autonomoa izan behar da bere ikuskera osatzen joateko.

2. Zentzu operatiboan:

2.1. Betebeharrak legepean: hau da, zuzenbide estatua.

2.2. Botere banaketa: legegilea, betearazlea eta federatiboa bereizten ditu. Honetan filosoforik garrantzitsuen Montesquieu dugu. Berak, hiru botere bereizten ditu. Hauek independenteak izan beharko lirarteke (Locken teoria ez da horren garatua).

2.3. Gobernu ordezkatzaila: hau ez da demokrazia. John Stuart Mill eta John Lockek zioten sufragio zentsitarioa bakarrik zegoela, hau da, guztiek ez zeukatela boto eskubidea.

2.4. Iraultza eskubidea: hitzarmenaren aldekoak biltzen dute eskubide hau. Kasu honetan, hiritarrek haien eskubideei uko egiten diete soberanoak bete ditzan. Soberano horrek hitzarmena bete behar du eta Locken kasua “propietatea” babestu beharko du. Soberanoak hitzarmenaren sinatutakoa betetzen ez badu biztanleek matxinatzeko eskubidea dute.

Partaidetza politikoa, zein momentutan? Partaidetza politikoa momentu mugatutan ematen da. Rousseau honen aurka arituko da, partaidetza politikoa etengabekoa izan behar dela uste baitu.

Bi ideia nagusitzen dira hemen: neutraltasuna eta tolerantzia.

1. Neutraltasuna: Elizaren jardura ez da soberanoaren jardurarekin nahastu behar. Estatuaren botere politikoak ez dio gizabanakoari gainezarri behar bizimodu onaren ideia edota erlijio jakin bat inposatzeko asmoarekin.

2. Antiperfekzionismoa: Gizakiak autonomoak izan behar dira beraien bizimodu onaren ideia garatzeko. Estatuak ez ditu gizabanakoak hobetu behar; hori gizabanakoaren erabakia da, beraien autonomia.

Tolerantzia

Gure gizarte modernoan elkarbizitza bermatzeko tolerantzia ezinbestekoa da, besteen ideiak errespetatzea, hain zuzen ere. Baina tolerantziaz idatzi duten guztiek beti galera berdinen inguruan egiten dute topo: “*zeintzuk dira tolerantziaren mugak?*” Lockerentzat tolerantziak **hiru muga** ditu (John Locke, Carta sobre la tolerancia):

1. “*Ninguna opinión contraria a la sociedad humana o a las reglas morales que son necesarias para la perseveración de la sociedad civil ha de ser tolerada por el magistrado*”

·Liberalek, ikuspuntu historiko batetik, zenbat eta adierazpen gehiago ezagutu ikuspuntuak aberasgarriagoak izango direla uste dute.

2. “*No puede tener derecho a ser tolerada por el magistrado una iglesia constituida sobre una base tal que todos aquellos que entran en ella se someten ipso facto a la protección y servicio de otro príncipe*”

·Beste eliza batean sartzea, non beste printze baten (Aita Santu) eskuetan jartzen diren.

3. “*Por último, no deben ser de ninguna forma tolerados quienes niegan la existencia de Dios*”

· Jainkoaren existentzia zalantzan jartzea.

5. Rousseau (1712-1778)

Sarrera

-Batzuk irakurketa positiboa eta beste batzuk negatiboa egiten dute berari buruz.

-Bere obra nagusia gizarte hitzarmena dugu. Nahimen orokorra da bere gakoa, eta Locke eta Hobbesen pentsamendutik aparte bizi zen.

Kontzeptu orokor batzuk

1. Boterearen legitimazioa: indar hutsez inposatzen den botereari obedientzia zor zaio? Bai. Legitimoa da? Ez. Hiritarrek uste badute obedientzia zor diotela, bai da legitimoa.

2. Nahimen Orokorra: nahimen orokorra gehiengoak dituen nahiak dira; prozedura bati jarraituz. Erabateko adostasuna lortzea zaila denez, Rosseuren arabera, ados ez zeuden gizabanako horiek libre izatera behartuak daude.

3. Ezberdinasun ekonomikoa gutxitzeko beharra: legitimazio sistema bi objektuetan laburtzen da: askatasuna eta berdintasuna. Pobreak ez dute horren pobreak izan behar eta aberatsek ez dute horren aberatsak izan behar. Askatasuna eta berdintasunaren arteko oreka hori bilatu behar da.

4. Gizarte hitzarmena eta beste teoria kontraktualistak: natura egoeran gizakiak dituen eskubideak soberanoaren esku uzten ditu, honek emandako segurtasun eta propietatearen truke. Beraz, soberano hori ikusgarria da, badakigu nor den eta legitimoa da (hitzarmen bidez akordatua).

Rosseuren kasuan, berriz, denak dira “euliak”, soberanoa herritarren esanetan dago.

Gainerako filosofoak herriaren ongia bilatzeko ordezkariak aukeratzearen alde zeuden, baina Rosseauk kontra egiten du, izan ere, hau aginte inperatiboaren alde dago: ordezkariak ez du askatasun ezta eskubiderik, taldearen iritzia defendatu behar du (nahimen orokorra), nahiz eta bere iritziarekin bat ez etorri. Era honetan, komisarioa agertzen da: herriak esandakoa bete behar duena.

Rousseau: Gizakiak etengabe parte hartzea asanbladetan ez da zerbait puntuala, baizik eta eguneroko zerbait =/ Hobbes: Partaidetza politikoa momentu batzuetara mugatzen da. Gizakiak ados jartzen dira beraien artean *levianthan*-a osatzeko.

5. Subiranotasunaren ezaugarriak:

5.1. Alienaezinezkoa: herriaren diputatuak ezin dira herriaren ordezkariak izan. Bi eredu ditu: ordezkatzaila (Rousseau hau kendu nahi) eta zuzeneko (Rousseau hau babestu). Zuzeneko erudian gizakiek zuzenean hartzen dituzte erabakiak, parlamenturik gabe.

5.2. Banaezinezkoa: Bere garaikide zen Montesquieu hiru botere zeudela argudiatzen zuen. Rousseau botere banaketa horren aurka zegoen.

5.3. Hutsezinezkoa: Herriak erabakitzen duena beti zuzena da.

5.4. Absolutua: Asanbladak erabakitzen duena egin behar da eta herritarrek soberanoa esandakoari jarraitu behar diote.

6. Legea: Rosseurentzat oso garrantzitsua da, obeditu beharreko zerbait. Printzipioz, nahimen orokorra asanbladan hartzen da; gizakiak asanblada irekietan bildu, eztabaidatu eta nahimen orokorrera iristen dira, legeak sortuz. Beraz, eztabaida oso elementu garrantzitsua da: iritziak planteatu, eztabaidatu eta puntu batera heldu.

Rosseuren ustez, eztabaidatzea ondo dago, baina eztabaida hura asko luzatzen bada, norbaitek bere interes propioak bilatzen dituenaren seinale izango da. Alde batetik, eztabaida ezinbesteko mekanismoa da, baina hura gehiegi luzatuz, interes partikularrak interes orokorren gainetik jartzen direla ulertuko da.

7. Gobernua: Gobernuaz hitz egiten denean botere legegilea gailendu behar da. Montesquieuk dio botereak independenteak direla, Rosseauk aldiz, gobernua bigarren mailan kokatzen du. Gobernua bigarren mailako organoa dela dio (pertsona batek edo talde batek gobernatuta ere), izan ere, azken finean, nahimen orokorraren organo betearazlea da, ez dute ekimen independenterik.

8. Rosseau eta eredu parte hartzailearen defentsa: Estatuak badu joera bat gizabanakoa zapaltzeko. Liberalek trena batzuk asmatzen dituzte, botere politikoen aurrean gizabanakoa babesteko; neutraltasun estatala (filosofiko), botere banaketa (operatibo)... horregatik, “eredu babestzailea” da.

Rousseau bat dator honekin, hala ere, bere eskutik zuzeneko demokraziaren defendatzaileek beste zerbait gaineratzen dute: “eredu hezitzailea”. Gizakia asanbladara joaten da bere interes partikularrekin. Bildu, gai baten inguruan eztabaidatu, nahimen orokorrera iristen saiatu eta lege bat sortzen dute. Hala ere, asanbladara joan baino lehen ez daki besteek zer pentsatzen duten. Beraz, gizabanako bezala doaz asanbladara, bere iritziarekin. Bertan, eztabaidatu eta zerbait ikasten dute (hezitu): bere interesaz gain, beste ikuspuntu batzuk daudela gizaratean. Hor dago erroka, zure interesak eta gizaratearen interesak bateragarri egitea. Gizabanakoa aberastu egiten da, interes eta ikuspuntu ezberdinak entzuten.

Rousseau-k gizabanakoaren ikuspegi baikorra dauka; **gizakia berez ona da baina instituzio eta gizarateak gaiztotu egiten du.**

5.1. Frantziar Iraultza (1789)

AEBtako herritarrek ez zuten ordezkariarik Britainia Handiko parlamentuan. Ondorioz, lelo hau famatua bihurtu zuten: “zergarik ez ordezkariarik gabe”.

Idazki esaguratsiak

Frantziar Iraultzaren eskutik hainbat ideia sartu ziren European (lege batzuk gure ingurunean eragin handia izango zutenak):

- Sufragio Unibertsala: mundu guztiak boto eskubidea izatea. Aurretik boto zentsitarioa zegoen, hau da, bakar batzuk zuten boto eskubidea. XX. mendetik aurrera, emakumeak ere boto eskubidea izan zuten.
- Arazo publikoetan hiritarren partaidetza: sufragio aktiboa (bozkatzeko eskubidea) / sufragio pasiboa (hautatua izateko eskubidea).
- Pentsamendu, prentsa eta erlijio askatasuna.

·Eliza eta estatuaren arteko banaketa: Frantzia horren adierazle nagusia izan zen. Espainian aldiz, ez dira guztiz banatzen.

·Legearen babesa: denok berdinak gara legearen aurrean eta ezin daitezke inongo diskriminaziorik egon.

·Bizitzeko lekua aukeratzeko eskubidea, arbitrarioki atxilotua ez izateko eskubidea, heziketa eskubidea, dibortzio eskubidea, ezkontza zibila...

Sieyès: “Zer da hirugarren estatua?” (idazkia): Frantzian, pertsonak jaiotzaren arabera zeuden banatuak (lehenengo, bigarren eta hirugarren Estatua):

·Lehenengo Estatua: Aristokrazia (nobleak) (110.000 kide)

·Bigarren Estatua: Elizgizonak (81.400 kide)

·Hirugarren Estatua: Residualak (langileak) (25, 26 milioi kide) → eragin politiko oso txikia. Honi buelta eman nahi zioten merezi zuten protagonismoa lortzeko, izan ere, ez zuten ia errekonozimendurik.

Gizonaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena (1789):

·Askatasuna: 1, 2, 4, 10 eta 11. artikulua.

·Legea: 3, 5, 6 eta 16. artikulua.

·Sistema judiziala: 7, 8 eta 9. artikulua.

·Funtzionamendua / tresnak: 12, 13, 14 eta 15. artikulua.

·Propietatea: 17. Artikulua.

Kant: Zer da Ilustrazioa?

·Autonomia ≠ Heteronomia

·”*Ilustrazioa da gizakiak berak eragindako heldugabetasunetik irtetea. Heldugabetasuna da beste norbaiten laguntzarik Gabe bakoitza bere ulermena erabiltzeko gai ez izatea. Heldugabetasun hori norberak eragiten du, horren kausa ez denean ulermen gabetza, baizik eta beste norbaiten laguntzarik Gabe erabiltzeko kemen eta kuraia falta. ‘Sapere aude’: izan ezazu kuraia zure ulermena erabiltzeko, hori da, hortaz, Ilustrazioaren lema” – Gizakia heldugabea da. Heldugabetasun hori norberak eragindakoa da, beraz, heteronomia hori aldatu daiteke. Heldugabetasun horre arrazoia ez da ulermen falta, baizik eta kemen eta kuraia falta, Ilustrazioa heldugabetasun horren irteera da.*

·”*Kontu hartzen duen artean ikusten ea hobekuntza benetako edo imajinariozko guztiak ordena zibilarekin bateragarriak diren, bere menpekoei utz diezaike euren salbaziorako beharrezko iruditzen zaiena egiten,*

ez baita bere arazoa” – Agintariek ezin diete inposatu gizakiei zein den bide egokia salbaziorako, ze erlijio bereganatu behar duen hain zuzen. Zenbat eta adimen kultural gehiago, orduan eta askeago eta autonomoagoa izango da gizakia.

5.2. Frantziar Iraultzaren kontrako erreakzioa: Edmund Burke (1729-1797) (Kontserbadurismoa)

Ilustrazioaren eta Frantziar Iraultzaren erreakzio bat izan zen. Burkek gutun luze bat (400 orrialdeko gutuna) idatzi zuen: *Reflections on the Revolution in France* (1790). Honakoa hiru zatitan banatzen da (ez dira atalak, adituek egindako bereizketak baizik):

1. *Revolution Society* (iraultzarekiko kideak) delakoari kritika.
2. Ingalaterrako kultura politikoaren goraiapena.
3. Frantziako egoera berriaren salaketa.

3.1. Historia eta tradizioa

“Iraganaren profetak” (kontserbadoreak): Frantziar Iraultzan iraganarekin hautsi beharra zegoen, etorkizunera bakarrik begiratuz, mundu hobeto bat eraikitzeko.

Aldaketa sozialaren auzia: Iraultzaileek egun batetik besterako aldaketak onartu zituzten: monarkia, estatu orokorrak... beraientzat gizakiak bildu egiten dira eta erabakiak hartzen dituzte. Kontserbadoreak, aldiz, ez dira arrazoi hutsaz fidatzen. Hauentzat, aldaketak neurrian hartu behar dira, apurka-apurka eginez.

Boluntarismo konstituziogilea: orain arteko dena irauli eta aldatu nahi zen. Kontserbadoreek, Burke-k kasu honetan, preskripzioa onartzen zuten; bere instituzio politikoak dituen herri bat, nazio bat, historian zehar mantendu izan bada eta onerako izan bada, zertarako aldatu? Honekin laburbiltzen da pentsamendu kontserbadorea.

Inspirazio iturriak historian aurkitzen dituzte; hala ere, horrek ez du esan nahi beti horri itsu-itsuan egin behar zaionik. Selektiboak dira; ona dena iraganetik dator, baina eskaintzen digun guztia ez da zertan onuragarria izan behar.

3.2. Aurreiritzia eta arrazoa

Arrazoa da Iraultzaileentzat printzipio nagusia. Kontserbadoreek, aldiz, arrazoiak ez ziren fidatzen eta honen erabileraren aurka egin zuten. Burkek aurreiritzia ere aldarrikatu zuen, esanahi berezi bat emanez: ukitu positiboa ematen zion. Hau mundua interpretatzeko modu bat dela dio.

3.3. Alderdi politikoaren definizioa

Honen iritziz, interes nazionala edo orokorra bilatzen zuten gizonen talde bat zen alderdi politikoa; denak ados agertzen diren printzipioei jarraituz.

7. Anarkismoa; Karl Marx eta Friedrich Engels

Definizioa

Bakoitzak bere patuaren jabe da eta aske izan behar da edozer gauza egiteko, betiere komunitaterako onurak lortzeko inolako berekoikeriarik gabe.

Ezaugarriak

Askatasuna: proletargoak askatasun guztia du erabakiak hartzeko, horren gainetik inolako gobernu edo botererik ez dagoela jakinda. Azken finean burujabe izatea elizarik eta gobernurik egon gabe.

Arrazioa: aurrerakuntza nahitaezkoa?; ilustrazioa: hezkuntzaren garrantzia aipatzen da herri burujabe bat izateko, hau da, hezkuntzak herriari baliabideak ematen dizkio arrazioa erabiltzeko. Eskolei garrantzia handia ematen diete, baita zentro kulturaleri eztabaidak bultzatzeko, arrazioa ilustratzeko eta aurrerakuntza bultzatzeko (Kant + John Stuart Mill + Anarkismoa). Azken finean arrazioa ezinbestekoa da burujabe izateko.

Giza natuararen ikuspegia: ikuspuntu positiboa dute, gizakian sinesten dute inolako botererik gabe antolatzeko. Adibidez, enpresetan asanbladatan biltzen dira eta ez dago arazorik burua aukeratzeko, ez da kompetizio bat. Kolektibizatzen da dena, eta antolatzen dira denak dena egiteko berekoikeria albo batera utziz.

8. Nazionalismoa

Totalismoa

Totalitarismoaren ezaugarriak azaltzeko C. Friedrich (Austria) eta Z. Brezinski (Polonia) 1956an egindako liburu batean oinarritu behar gara. Totalitarismoak komunean zituen ezaugarriak batu zituzten, eztabaideaekin direnak:

-Ideologia ofizial bat izatea: Hauen ustez, honi esker ordena perfektua sortuko litzateke. Ideologia honen aurkako ideologiak ez dute lekurik; ez baitago neutraltasunik. Edozein ideiek ez du lekurik ideologia ofizialarekin bat ez badator.

-Alderdi politiko bakarra izatea: pluraltasunerako tokirik ez dago; beraz, alderdi bakarra dago, lider bakar bat ere izanik: Alemanian Alderdi Nazional Sozialista (Hitler) eta Sobietar Batasunean Alderdi Komunista (Stalin).

-Kontrol poliziala eta biolentziaren indarraren erabilpen arbitrarioa: aparailu polizialek gizartea kontrolatzen du

-Propaganda: masa medioak kontrolatzen dira, hau da, biztanleek ezin dute irakurri, entzun edota idatzi nahi duten edozein mezu.

-Ekonomiaren planifikazioa: Ekonomia ez da uzten merkatu librearen eskuetan; hau estatuak kontrolatu eta gidatzen du.

Nazional sozialismoaren helburua Alemaniaren arraza zaintzea zen, haien odola babestea haien izaera mantentzeko. Aurreko guztia instrumentuak izango ziren haien helburua alemaniarren egiazko izaerari eusteko. Hau ikusteko **Paul Klee margolariaren margolanarekin** ikus daiteke, totalitarismoaren kritika dena:

-Koloreak daude, pluraltasunaren sinbolo direnak.

-Mugitzen ari diren tamaina ezberdinetako pertsonak dira.

-Izenburuak badu akueduktua: “*Revolucion de los acuaductos*”. Hemen arkuak lerroak apurtu dituzte, *romper filas* ejertzitotik hartutako esapidea dena. Horrek nazien militarizazioa kritikatzeko du. Beraz

totalitarismoaren ezaugarriak gizon edo gizaki berri bat sortzeko daude, non bere bizitza propioaz aukeratzeko eskubiderik ez duten.

Propagandaren printzipioak

-Propagandaren mezua ulertterraza izan behar da, tontoenak ulertzeko modukoa izatea.

-Masa (gizakiak), ilustratzeko mezua behin eta berriz errepikatu behar da.

-Gezuraren erabilpena politikagintzan: jendearen sentimenduetara iritsi nahi zuten, hauek arrazoitzeko denbora ez edukitzeko.

“El triunfo de la voluntad” dokumentala

Dokumentalaren hasieran agertzen diren ezaugarri garrantzitsuak:

Sinboloak: dokumentalaren hasiera sinboloz josita dago, adibidez:

-Esbastikak: eguzkia irudikatzen du. Behin, alderdiko sinbolo bezala lauburua jartzea proposatu zen, ertz borobilagoak dituelako (lauburua ere esbastika mota da). Hala ere, Hitlerrek ez zuen proposamena gustuko eta ideia ez zen aurrera eraman.

-Arranoa: agertzen den lehenengo irudia, faxisten sinbolo gisa erabiltzen dena. Nazistek ere sinbolo hau berenganatu dute, alde batetik, altuen hegan egiten duen animalia delako (gailentasunaren sinboloa), eta beste alde batetik, boterea irudikatzen delako.

Masak: Hitlerren desfilean zehar, jende asko eta asko ikus daiteke (harrigarria ume eta emakumeen kopurua). Gainera, desfilea egiten den bitartean disiplina adierazten dute: denak formazioan daude, denak lerrotaturik, alderdi bakarraren ideia irudikatuz.

Hitler goraiatzea: Hitler Alemaniaren salbatzaile bezala irudikatzen da. Hasieran, hegazkinean dagoela, lainoen gainetik dagoela ikus daiteke, denaren gainetik dagoela eta botere guztia duela.

Hitlerrek, diskurtsoan zehar, alderdi Nazional Sozialistaren hainbat ezaugarri goraiatzen ditu. Alderdiaren helburua alemaniar dezente guztiak Nazional Sozialista bihurtzea da, alderdia nagusi eginez. Gainera, ikuspegi honekin bat ez datozenak baztertu behar direla dio, totalitarismoaren ideiarekin bat etorriz: “gizon onaren” definizioa aurretik ezarrita dago eta honekin bat ez datorrena kanporatua izango da.

Gainera, beraien jomuga gazteriara heltzea da, hauekin Alemania berri bat eraikitzeko. Izan ere, zerbait eraikitzeko behetik hasi behar da, umeengandik.